

LET 2024-2025 ikasturtea

Lanpostuen Esleipen Telematikorako kontu interesgarriak



www.steilas.eus

Lanpostuen Esleipen Telematika

Aholkuak



Kontratazioen funtzionamendu guztia azaltzen duen gure **txostena**

[37/2020 Foru Agindua, zerrenden kudeaketa](#)

[39/2023 Foru Dekretua, titulazio eskakizunak](#)

- [I. eranskina, titulazio eskakizunak](#)

[37/2014 Foru Dekretua lanpostuen hornidura](#)

[36/2022 Foru Araua profilak arautzen dituen](#)



[Zerrenda kudeaketarako gure aldarrikapenak \(bideoa\)](#)

Ekaineko eta abuztuko LET masiboak prozesu bakartzat hartzen dira, beraz, bi LETak amaitzean hartzen da norbait "prest" edo "ez prest" jartzeko erabakia. Ekaineko ATPan derrigorrezko partehartzean bazara eta uko egiten badiozu, ezin izango duzu abuztukoan parte hartu, ezta ere baztertu duzun kontratu horren lehenengo eguna pasa arte "prest" egoeran jarri ere.

Esleipen telematikoak

Aurten denak abuztuan izango dira egongo diren oposaketa lehiaketa ezberdinak direla eta.

Adi!

Hemen duzue aplikaziorako **ESTEKA**.



Educako sarbidea, NAN digitala, clove edo ziurtagiri digitala behar dituzu parte hartzeko.

Bi partehartze mota izanen dira:

Nahitaezkoa (horrela deituak direnak): NANA sartuz jakin daiteke. Kasu honetan, zein zerrendetan gauden eta eskaintzen zaizkigun lanpostuak, eta parte hartzera derrigortuak gauden ala ez eta gure postua agertuko zaizkigu. Oso garrantzitsua da aukera guztiak betetzeko adina lanpostu jartzea, plazaren bat emateko aukera izan eta eskatu ezean, 'ez prest' bezala jarriko baikaituzte. Jakin ere, norberak gustuko duen hurrenkeran ordenatu ahalko dituela lanpostuak.

Borondatezkoa (zerrendako izangai guztientzat): kasu honetan interesekoak izan ditzazkezen lanpostuak betetzea gomendatzen dizuegu, zerrendan atzeko aldean egonda ere.

Zerrenden hurrenkeraren arabera esleituko da eta bidaltzen den azken parte hartzeak balioko du.

Info +

Laguntza [eskuorria](#). # [Bideoa](#): nola parte hartu.

Arazo teknikorik baduzue:

📞 948 013 576 ✉ soportec@navarra.es

Esleipenak ikasturtean zehar. LET

Astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan, 14:00etatik hurrengo eguneko 08:30etara.

Ez-ohiko deialdiak:

Ostegunetan ez-ohiko deialdiak egingo dira 14:00etatik ostiraleko 08:30ak arte.

Zerrendetan ez dauden pertsonak parte hartu ahal izango dute. Web-deialdien orrialdetik tramitatuko da.

Ohiko galderak

Esleipenean lanposturik hartzen ez badut:

Eman ahal zaizkizun lanpostu guztiak jartzen ez badituzu (nahitaezko parte-hartzea), eta zauden hurrenkeragatik lanpostu bat esleitzeko aukeran bazaude, hurrengo ikasturterate "ez prest" bezala jarriko zaituzte zerrenda guztietan. Ikasturte bakoitzeko aukera bakarra duzu "ez prest" horretatik "prest" egotera pasatzeko, instantzia bidez egindako eskari bidez. 10 egunen barruan eskaria efektibo izanen da, eta inoiz ez uko egindako lanpostuari zegokion hurrengo eguna baino lehen.

Behartutako lanpostu bati berriz uko egitekotan (justifikatzerik gabe) zerrenda guztietan "ez prest" bezala geratuko zara ikasturte bukaera arte.

Lanpostu bati uko egin ahal diot postua galdu gabe?

Bai, plaza hauei egin diezaiekezu uko:

1. Ibiltariak.
2. Esleipen telematiko masiboetan uko egin ahalko zaie % 80 baino gutxiagoko jardunaldia duten lanpostuei (<15 saio Irakaskuntza Ertainetan, <20 saio Haur eta Lehen Hezkuntzan). Esleipen masiboen ondotik eginen diren eskaintzetan (ikasturtean zehar) %50 baino gutxiagoko jardunaldia duten lanpostuei soilik egin ahalko zaie uko (<9 saio Irakaskuntza Ertainetan, <12 saio Haur eta Lehen Hezkuntzan).
3. Antzeko espezialitate batekoa denean.
4. Gartzelako plaza denean.
5. Beste espezialitateren batekin osatzen edo gaitasun instrumental edo tekniko bat eskatzen duten lanpostu mistoak, beti ere pertsonak ez badu profil hori akreditatu edo zerrenda horietan ez badago.



Justifika daitezkeen uko egiteak

Ondorengo kasuetan (14. art.) justifikatu daitezke:

1. Erditze, adopzio edo harreragatik lizentzia izatea: eskubidea izanen duzu LETen parte hartu eta plaza esleitzen dizutenean lanpostua erreserbatzeko, eta lizentzia aldia bukatzen denean hartu beharko duzu lanpostu hori. Ez baduzu hartzen ukoa justifikatutzat hartuko da.
2. Erditzen ez duen gurasoari dagokion baimena izatea.
3. Aldi baterako bajaran egotea.

Kasu horietan prest ez zaudela agertuko da aldi baterako kontrataziorako zerrenda guztietan, prest agertzea eskatzen duzun arte (alegatutako egoera desagertu delako). Prest zaudela adierazten duzun unean, honakoa frogatu beharko duzu: arrazoia eta horren bukaera data (medikuaren agiria, adopzio paperak...).

Kontratua eten dezaket?

Behin kontratu bat hartuta, uko egiteak zerrenda guztietatik kanporatua izatea ekar dezake. **Gutxienez 15 egun natural lehenago abisatzen baduzu kontratuari uko eginen diozula, bakarrik lanean zauden zerrendatik botako zaituzte (15. art).**

Eszedentziak eta jardunaldi murrizketak

- **3 urte baino gutxiagoko umea zaintzeko eszedentzia:** ume beragatik izandako azken eszedentziatik 6 hilabete pasa badira eska daiteke. Ez da kobratzen, baina kotizatzen da (ez beti bere osotasunean) eta %100ean puntuatzen du. Uda kobratze aldera zerbitzu aktibo bezala kontsideratuko da.

Eszedentzia berezian egonda LETean plaza bat har dezakezu eta instantzia orokor bitartez eszedentzia bereziarekin jarraitzea eskatu.

- **Jardunaldi murrizketak:**

1. Jardunaldi osoko plaza bat hartzen baduzu murrizketa eska dezakezu ikasturteko edozein momentutan, ondorengo arrazoiren bat argudiatuta:

- 12 urte baino gutxiagoko seme/alaba, zaintza berezia behar duen pertsona heldua edo eskubide berezidun pertsona zaintzeko.
- Lehen edo bigarren graduako ahaide bat zaintzeko.

2. Kontratu partzialetan, geratzen den ordu kopurua, Hezkuntzak finkatutako murrizketa kasu hauetako bat balitz (beharrei lotu gabea: lanaldiaren 1/3, 2/5, 1/2, 2/3, 1/8, 1/6, 1/4 edo % 45).

3. Ikasturte honetatik aitzina:


- % 100ean kotizatutzat emanen dira haurrak 12 urte izan arte hartutako jardunaldi murrizketak.
- Lanaldiaren % 50eko murrizketarako eskubidea, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen adingabea zaintzeko, ordainsariak murriztu gabe, baldin eta gaixotasunaren tratamenduan zehar zuzeneko zaintza jarraitu edo iraunkorra behar bada (ospitaleratu behar bada edo ez). Salbuespen gisa, % 99,99rainoko murrizketa lortu ahal izango da, behar bezala egiaztatzen denean.

- Salbuespenez, genero-indarkeriaren biktima diren funtzionarioek beren ordainsariak osorik mantenduko dituzte lanaldia heren bat edo gutxiago murriztuta.

4. Honako kasuetan ikastetxeko beharrei baldintzatua:

- 55 urte edo gehiago dutenek.
- Aldi baterako ezintasuna edo ezintasun iraunkorra ez dakarren gaixotasunagatik.
- 12-16 urte arteko seme-alaben zaintzarako.
- Interes partikularrengatik (normalki ematen dute, baina jardunaldi osoan lanean segitzera behartzen dute murrizketa zati hori beteko duen ordezeko bat izan arte).

5. 1/4, 1/6 eta 1/8 murrizketak ez dira ordezkutzen, hortaz, zailago da eskariak onartzea.



“Profila” eta “orduekin”-en arteko diferentzia

Lehenengoak profila izatera behartzen du lanpostua hartzeko, bigarrenak, aldiz, ez du behartzen.

Metodologia edo proiektu desberdinen inguruan agertzen diren informazioak soilik orientagarri dira, eta ez dute inongo profil edo titulazio berezirik izatera behartzen.

Zerrendak kontsultatzeko

Zerrendetan sartzeko [kontsultarako aplikazioa](#)

Ziurtatu daitezkeen profilak

[Esteka](#)

Zerrendetan sartzeko berriazko titulazioak

[Esteka](#)

Informazio gehiago

nafarroa@steilas.eus

📞 948 212 355

Ikastetxeak. Jardunaldi mota

Nafarroan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe **guztietan** izanen dute 2024-25 ikasturtean **jardunaldi jarraia**, hauetan izan ezik:

Malgua: Abartzuza / Antzin

Zatitua:

- Amaiur	- Larraintzar	- Pamplona / Iruña (Bernart Etxepare, Sanduzelai, Elorri, Amaiur Ikastola, Patxi Larrainzar, Hegoalde Ikastola, Lezkairu Paderborn, Andres Muñoz Garde)
- Arantza	- Lesaka	
- Bera	- Luzaide	- Puente la Reina / Gares
- Berriozar	- Narbarte	- Zizur Mayor / Zizur Nagusia
(Mendialdea I y II)	- Mutilva / Mutiloa	(Catalina de Foix, Erreniega, Camino de Santiago)
- Estella / Lizarra	(Irulegi, San Pedro)	- Zubiri
- Etxalar	- Orkoien	- Zudaire
- Igantzi	(Auzalar, San Pedro)	
- Jauntsarats		

Betetzeko zailak diren lanpostuak dituzten ikastetxeak

(lanpostua 3 urtez gordeko da beharra mantentzen den bitartean)

- Aurizberri, Auritz, Erro, Garralda, Luzaide, Otsagabia, Erronkari, Urdazubi-Zugarramurdi eta Zudaire.
- Arantza, Betelu eta Goizuetako ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako irakaslegoa.
- 5 unitate edo gutxiago dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako eskoletako lanpostuak.

ADI!

Betetzeko zaila den lanpostu bat baldin baduzu eta ez baduzu LETean parte hartzen, maitzean uko egin ez baduzu, zerrenda guztietatik kanporatua izango zara


HH, LH eta DBHletan.	Auritz, Aurizberri, Erro, Erronkari, Garralda, Otsagabia, Luzaide, Zugarramurdi.
Irakaskuntza Ertainak.	Arantza, Betelu, Goizueta, Urdazubi-Zugarramurdi.
Bost unitate edo gutxiagoko landa-eskolak.	Aibar, Almandoz, Amaiur, Antzin, Añorbe, Areso, Arizkun, Arraioz, Arroniz, Auritz, Auzperri, Azpilkueta, Beire, Berbinzana, Casada, Dicastillo, Erratzu, Erro, Erronkari, Fontellas, Garralda, Gartzain, Igantzi, Irurita, Ituren, Iturmendi, Jauntsarats, Legasa, Lekaroz, Lumbier, Luzaide, Melida, Monreal, Monteagudo, Murillo el Fruto, Narbarte, Obanos, Otsagabia, Oronoz, Oteiza, Nicasio Landa (Iruña), Pitillas, Rada, Saldias, Santacara, Uxue, Urdiain, Urroz, Ziga, Zudaire, Zugarramurdi.

Betetzeko zailak diren postuetan aldaketak (39/2023 F.D eta 37/2014 F.D.)

<p>Araubide orokorra</p>	<p>24/25 ikasturtean 3 urteko epearen barruan daudenek, eta lanpostua betetzeko zaila den espezialitatean eta hizkuntzan lanpostu gehiagorik ez badago, beste zerrendaren batean badaude, zerrenda horietan edozein lanpostu aukeratu ahal izango dute lanpostuen esleipen masiboaren aurretik. Beste zerrenda batean ez badaude, betetzeko zailak diren lanpostuen antzeko espezialitateko zerrendetan aukeratu ahal izango dute, esleipena egin aurretik.</p> <p>Lanpostuari uko egin dakioket maiztean horretarako gaitutako epean, kasu horretan, zerrenda horretan alde aurretik zuten posizioan aukeratu dute.</p> <p>Jarraitu nahi badute, ATPn parte hartzea nahitaezkoa da.</p>
<p>Araubide trantsitoria</p>	<p>22/23tik aurrera sartu ziren irakasleek 3 urteko iraupeneko kontratua izango dute gehienez (iraupena murriztuko da lanpostu hori funtzionario batek okupatzen bada, ikastetxean beharra desagertzen bada, jardunaldi erdia baino gutxiagokoa izatera pasatzen bada, ibiltaria bada edo trebetasun instrumental espezifikoak baditu).</p>

NO EXIT:

**ZERRENDEN
KUDEAKETAN
GALDUAK**



Departamentuaren kudeaketa

Sarrera korapilatua eta berezia.

Prekarizazioa eta estresa: oposizioen mendeko zerrendak.

Hizkuntzaren eta profilen araberako zerrenda bereziak (gaztelania, euskara, gazt/ing, eus/ing, gazt/fra, gazt/ale).

Ordezkapenak betetzeko zailtasunak.

Zerrenden irekitze arbitrarioa.

Zerrenda fosilak.

Esperientziaren puntuazio baztertzaila.

% 50eko interinitate-tasa.

Apartheid linguistikoa areagotzea (hipersegregazioa).

STEILASen proposamena

Oposizio eta zerrendak bereiztea.

Baremoan puntu gehiago oposizioak gainditzean.

Zerrenda bakarra eta integratua.

Espezialitateen, hizkuntzen eta profilen kudeaketa bateratua.

Hautagaien aukerak errespetatzea (zonaldea, jardunaldia).

Zerrendak etengabe irekiak eta urtero birbarematzea.

Kontziliazioa erraztea.

Irakasle kontratatuen babes handiagoa.

Lanpostuen Esleipen Telematikoak

Haur eta Lehen Hezkuntzako ordutegia. Jardunaldi jarraia duten ikastetxeak

Kontratu mota %	Kontratuan ordu lektiboak	Kontratuan orduak guztira	Ordu osagarriak	Irakaskuntza zuzeneko saioak 45'	Irakaskuntza zuzeneko orduak	Beste ordu lektiboak	Jolasorduak	Beste lektibak jolasordu EZ, orduetan	Beste lektibak jolast. EZ 45' saioak	Soldata gordina €
100,00	25,00	30,00	5,00	26,00	19,20	5,80	2,50	3,30	4,40	2.460,88
96,00	24,00	28,80	4,80	24,00	18,30	5,70	2,40	3,30	4,40	2.362,44
92,00	23,00	27,60	4,60	23,00	17,50	5,50	2,30	3,20	4,30	2.264,00
88,00	22,00	26,40	4,40	22,00	16,70	5,30	2,20	3,10	4,10	2.165,57
84,00	21,00	25,20	4,20	21,00	15,80	5,20	2,10	3,10	4,10	2.067,13
80,00	20,00	24,00	4,00	20,00	15,00	5,00	2,00	3,00	4,00	1.968,70
72,00	18,00	21,60	3,60	19,00	14,20	3,80	1,80	2,00	2,70	1.771,83
68,00	17,00	20,40	3,40	18,00	13,30	3,70	1,70	2,00	2,70	1.673,39
66,00	16,50	19,80	3,30	17,16	12,67	3,60	1,65	1,90	2,60	1.624,18
64,00	16,00	19,20	3,20	17,00	12,50	3,50	1,60	1,90	2,50	1.574,96
60,00	15,00	18,00	3,00	16,00	11,70	3,30	1,50	1,80	2,40	1.476,52
56,00	14,00	16,80	2,80	14,00	10,80	3,20	1,40	1,80	2,40	1.378,09
52,00	13,00	15,60	2,60	13,00	10,00	3,00	1,30	1,70	2,30	1.279,65
50,00	12,50	15,00	2,50	12,78	9,58	2,90	1,25	1,65	2,20	1.230,44
48,00	12,00	14,40	2,40	12,00	9,20	2,80	1,20	1,60	2,10	1.181,21
44,00	11,00	13,20	2,20	11,00	8,30	2,70	1,10	1,60	2,10	1.082,78
40,00	10,00	12,00	2,00	10,00	7,50	2,50	1,00	1,50	2,00	984,34
36,00	9,00	10,80	1,80	9,00	6,70	2,30	0,90	1,40	1,90	885,91
33,00	8,25	9,90	1,65	8,58	6,33	2,10	0,82	1,40	1,90	812,09
32,00	8,00	9,60	1,60	8,00	5,80	2,20	0,80	1,40	1,90	787,47

Lanpostuen Esleipen Telematika

Haur eta Lehen Hezkuntzako ordutegia (urritik maiatza bitarte). Jardunaldi zatitua duten ikastetxeak, bakanteak hartu dituztenentzat eta kontratua abuztuaren 31 arte dutenak. Iraila eta ekainean jardunaldia proportzionalki murrizten zaie.

Kontratu mota %	Orduak guztira iraila eta ekaina	Ordu lektiboak urria-maiatza	Ordu osagarriak	Orduak guztira urria-maiatza	Irakaskuntza zuzeneko saioak	Irakaskuntza zuzeneko orduak	Beste ordu lektiboak	Jolasorduak	Beste lektibak jolasordu EZ	50'ko saioetan	Soldata gordina €
100,00	25,00	26,00	5,00	31,00	23,00	19,20	6,80	2,50	4,30	5,20	2.460,88
96,00	24,00	24,96	4,80	29,80	22,00	18,30	6,70	2,50	4,20	5,00	2.362,44
92,00	23,00	23,92	4,60	28,50	21,00	17,50	6,40	2,40	4,00	4,80	2.264,00
88,00	22,00	22,88	4,40	27,30	20,00	16,70	6,20	2,30	3,90	4,70	2.165,57
84,00	21,00	21,84	4,20	26,00	19,00	15,80	6,00	2,20	3,80	4,60	2.067,13
80,00	20,00	20,80	4,00	24,80	18,00	15,00	5,80	2,10	3,70	4,40	1.968,70
72,00	18,00	18,72	3,60	22,30	17,00	14,20	4,50	1,70	2,80	3,40	1.771,83
68,00	17,00	17,68	3,40	21,10	16,00	13,30	4,40	1,60	2,80	3,40	1.673,39
66,00	16,50	17,16	3,30	20,46	15,18	12,67	4,30	1,60	2,70	3,40	1.624,18
64,00	16,00	16,64	3,20	19,80	15,00	12,50	4,10	1,50	2,60	3,10	1.574,96
60,00	15,00	15,60	3,00	18,60	14,00	11,70	3,90	1,40	2,50	3,00	1.476,52
56,00	14,00	14,56	2,80	17,40	13,00	10,80	3,80	1,40	2,40	2,90	1.378,09
52,00	13,00	13,52	2,60	16,10	12,00	10,00	3,50	1,30	2,20	2,60	1.279,65
50,00	12,50	13,00	2,50	15,50	11,50	9,60	3,40	1,20	2,20	2,64	1.230,44
48,00	12,00	12,48	2,40	14,90	11,00	9,20	3,30	1,20	2,10	2,50	1.181,21
44,00	11,00	11,44	2,20	13,60	10,00	8,30	3,10	1,10	2,00	2,40	1.082,78
40,00	10,00	10,40	2,00	12,40	9,00	7,50	2,90	1,10	1,80	2,20	984,34
36,00	9,00	9,36	1,80	11,20	8,00	6,70	2,70	1,00	1,70	2,00	885,91
33,00	8,25	8,58	1,65	10,20	7,59	6,30	2,24	0,80	1,60	1,60	812,09
32,00	8,00	8,32	1,60	9,90	7,00	5,80	2,50	0,90	1,60	1,90	787,47

Lanpostuen Esleipen Telematika

Haur eta Lehen Hezkuntzako ordutegia. Jardunaldi zatitua duten ikastetxeak, ordezkapenak, kontratua ekainaren 30ean bukatzen zaienak eta ikasturte guztian ordutegi berean

Kontratu mota %	Kontratu ordu lektiboak	Orduak guztira	Ordu osagarriak	Irakaskuntza zuzeneko saioak	Irakaskuntza zuzeneko orduak	Beste ordu lektiboak	Jolasorduak	Beste lektibak jolasordu EZ	50'ko saioetan	Soldata gordina €
100,00	25,00	30,00	5,00	23,00	19,20	5,80	2,50	3,30	4,00	2.460,88
96,00	24,00	28,80	4,80	22,00	18,30	5,70	2,40	3,30	3,80	2.362,44
92,00	23,00	27,60	4,60	21,00	17,50	5,50	2,30	3,20	3,70	2.264,00
88,00	22,00	26,40	4,40	20,00	16,70	5,30	2,20	3,10	3,60	2.165,57
84,00	21,00	25,20	4,20	19,00	15,80	5,20	2,10	3,10	3,60	2.067,13
80,00	20,00	24,00	4,00	18,00	15,00	5,00	2,00	3,00	3,40	1.968,70
72,00	18,00	21,60	3,60	17,00	14,20	3,80	1,80	2,00	2,60	1.771,83
68,00	17,00	20,40	3,40	16,00	13,30	3,70	1,70	2,00	2,50	1.673,39
66,00	16,50	19,80	3,30	15,18	12,67	3,62	1,65	1,90	2,50	1.624,18
64,00	16,00	19,20	3,20	15,00	12,50	3,50	1,60	1,90	2,40	1.574,96
60,00	15,00	18,00	3,00	14,00	11,70	3,30	1,50	1,80	2,30	1.476,52
56,00	14,00	16,80	2,80	13,00	10,80	3,20	1,40	1,80	2,20	1.378,09
52,00	13,00	15,60	2,60	12,00	10,00	3,00	1,30	1,70	2,00	1.279,65
50,00	12,50	15,00	2,50	11,50	9,60	2,90	1,25	1,65	1,99	1.230,44
48,00	12,00	14,40	2,40	11,00	9,20	2,80	1,20	1,60	1,90	1.181,21
44,00	11,00	13,20	2,20	10,00	8,30	2,70	1,10	1,60	1,80	1.082,78
40,00	10,00	12,00	2,00	9,00	7,50	2,50	1,00	1,50	1,70	984,34
36,00	9,00	10,80	1,80	8,00	6,70	2,30	0,90	1,40	1,60	885,91
33,00	8,25	9,90	1,65	7,59	6,33	2,10	0,82	1,40	1,60	812,09
32,00	8,00	9,60	1,60	7,00	5,80	2,20	0,80	1,40	1,60	787,47

Irakaskuntza Ertainetako ordutegia

Kontratu mota %	Lektiboak	Orduak guztira	Beste ordu lektiboak	Ordu osagarriak. Astekoak	Ikastetxean egon beharrekoak	Ordu osagarriak. Hilabetekoak	Soldata gordina BH	Soldata gordina Lan. Hez. IT.
100,00	18,00	30,00	2,00	5,00	25,00	5,00	2.827,29	2.587,42
94,44	17,00	28,33	1,89	4,72	23,61	4,72	2.670,73	2.443,56
88,89	16,00	26,67	1,78	4,44	22,22	4,44	2.513,77	2.299,96
83,33	15,00	25,00	1,67	4,17	20,83	4,17	2.356,54	2.156,09
77,78	14,00	23,33	1,56	3,89	19,44	3,89	2.199,58	2.012,49
72,22	13,00	21,67	1,44	3,61	18,06	3,61	2.042,35	1.868,63
66,67	12,00	20,00	1,33	3,33	16,67	3,33	1.885,39	1.725,02
61,11	11,00	18,33	1,22	3,06	15,28	3,06	1.728,17	1.581,17
55,56	10,00	16,67	1,11	2,78	13,89	2,78	1.571,21	1.437,57
50,00	9,00	15,00	1,00	2,50	12,50	2,50	1.413,97	1.293,70
44,44	8,00	13,33	0,89	2,22	11,11	2,22	1.256,74	1.149,84
38,89	7,00	11,67	0,78	1,94	9,72	1,94	1.099,78	1.006,24
33,33	6,00	10,00	0,67	1,67	8,33	1,67	942,56	862,38
27,78	5,00	8,33	0,56	1,39	6,94	1,39	855,61	718,78
22,22	4,00	6,67	0,44	1,11	5,56	1,11	628,22	574,92
16,67	3,00	5,00	0,33	0,83	4,17	0,83	471,30	431,31
11,11	2,00	3,33	0,22	0,56	2,78	0,56	314,11	287,46
5,56	1,00	1,67	0,11	0,28	1,39	0,28	157,19	143,85

STEILASek jarraitzen dugu ozen kritikatzeko zerrenda kudeaketa nahasgarri hau, toxikoa, eskasa eta arazoz beterikoa.

Irakasle kontratatuen zerrendak kudeatzeko formula berria beharrezkoa da behingoz!

Premiazkoa da sistema berregitea, oposiziotik bereizia den zerrenda kudeaketa batera pasatzea, izangaien urteroko birbaremazioa berrartzea. Labur esanda, zerrenden kudeaketa integratu bat ezartzea, non irakasleen abilitazio, hizkuntza eta profil guztiak kontuan hartuko diren.

Egun dugun kudeaketak sistema bera eta eskola komunitate osoa kaltetzen ditu.



Zerrenden kudeaketa araudia 37/2020 FA, 39/2023 FD, 37/2014 FD , 44/2021 FD

Zerrenda motak	Betebeharrak	Puntuazioa/hurrenkera	Indarrean noiz arte	Oharrak
1° Funtzionario plaza lortu ez duten LEP aprobatuak	Dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntzan oposizio aldia gainditu izana, funtzionario plazarik lortu gabe.	Oposizio eta lehiaketa faseen batuketa haztatua.	Zerrendak berregin arte.	Hiru plazetatik lehena % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten zerrenda honetako pertsonentzat izanen da.
2° Kontrataziorako izangaien zerrenda orokorra	<p>a) Azken oposizioaldira aurkeztuak dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntza eta baldintza hauek betez:</p> <ol style="list-style-type: none"> Lehenengo ariketara aurkeztu izana +0. Oposizio fasean puntuazio positiboa lortu izana. Espezializatean eskatzen den titulazioa izatea (I. Eranskina). Ez da beharrezkoa izanen lehendik zerrendan zeudenentzat. Irakaskuntzarako edo espezialiterako gaitasun faltagatik aurretik kanporatua ez izatea. Ariketa praktikoa gainditu izana zerrendetan mantentzeko beharrezkoa den espezialitateetan. <p>b) Aurreko oposizioan funtzionario plaza lortu ez zutenak edo zerrenda orokorrean sartu zirenak eta baldintza hauek betez:</p> <ol style="list-style-type: none"> Edozein kidego, espezialitate eta hizkuntzatan lehen ariketan aurkeztu izana 2019ko urtarriletik aurrera ospatutako LEPetan. Oposizio fasean puntuazio positiboa ateratu izana +0. <p>c) Oposizioa deitzen den espezialitatean, ikasturte berean kidego, espezialitate eta hizkuntza horretan gutxienez kontratu bat izan duten pertsonak, eta zerrenda orokorrean egoteko behar diren titulu eskakizunak betetzen dituztenak.</p> <p>Zerrenda orokorrera gehituko dira (titulu eskakizunak beteta):</p> <ul style="list-style-type: none"> Berariazko zerrendetatik. Kontratazio deialdi berezien bidez sartuak. Web deialdian kontratu bat onartuta. Antzeko zerrendetatik kontratatuak. 	<p>II. Eranskina</p> <ol style="list-style-type: none"> Aurretiko esperientzia irakaskuntzan (10 puntu max.). Formakuntza akademikoa (5 puntu max.). Bestelako merituenak (2 puntu max.). Oposizio fasearen emaitza (oposizio fasearen emaitzen batezbesteko aritmetikoa). <p>II. Eranskina (Gaineko informazioan dagoen baremo berbera).</p> <p>2021eko LEPetik aurrera, espezialitate batera aurkeztuz gero, irakaskuntza lan esperientzia barematuko da jada dagoen gainerako zerrendetan.</p> <p>Aurreko atalen atzean eta jatorrizko zerrendetan zeuden ordenean, baina puntuaziorik gabe.</p> <p>Puntuaziorik gabe eta bertan daudenen atzean, zerrenda horretan sartzearen data, ordua, minutu eta segunduaren arabera. Eta berdinketa egotekotan, kontratua egin zieten zerrendan zeuden ordenaren arabera.</p>	Hurrengo oposizio edo zerrendak berregin arte.	<p>Bi atal hauen arteko berdinketarik egongo balitz, honela ebatziko lirateke:</p> <ol style="list-style-type: none"> Merezimendu baremoan puntuaziorik altuena, II. Eranskinean agertzen diren ordenean. Merezimendu baremoko azpi ataletan puntuaziorik altuena, II. Eranskinean agertzen diren ordenean. Lehenengo abizenaren arabera alfabetikoki ordenatua (beharrezkoa bada, bigarrenarena), egindako letren azken zozketaren arabera.

Zerrenda orokorraren berrantolamendua: azken bi urteotan oposizioa deialdirik egon ez den espezialitatean eta hizkuntzetan, indarrean dagoen baremoa ezarriko da. 2019ko urtarrilaren 1a ondotik izanen diren oposizioetan, kontrakoa adierazten ez bada, Departamentuak ofizioz 2012tik azken 3 oposizio deialdietan ateratako puntuaziorik altuena gordeko du (beti ere kidego, espezialitate eta hizkuntza berean).

Zerrenda motak	Betebeharrak	Puntuazioa/hurrenkera	Indarrean noiz arte	Oharrak
3. Berariazko zerrendak (irekiera edo proba bidez sartuak).	<p>a) Zerrenden irekiera bidez: Eskari orria aurkeztuz eta kidego, espezialitate eta hizkuntza (behar izanez gero profila ere) horretarako betebeharrak egiaztatuz.</p> <p>b) Proba deialdien bidez: Musika eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleentzat proba gainditzea eskatuko da. Lanbide Heziketa eta Arte Plastiko eta Diseinuko irakaskuntza profesionaletako espezialitateetan, aldiz, Zuzendaritza Nagusiaren informearen arabera.</p>	<p>Eskatutako tituluaren batezbesteko emaitza. Berdinketa egotekotan, istantzia aurkezpenaren ordenaren arabera ebatziko da.</p> <p>Probaren guztizko emaitzaren arabera (10 puntu max. eta baztertzalea izanen da erdia gainditzen ez dutenentzat. Bi zati edo gehiago izanez gero, zati bakoitza izanen da baztertzale). Berdinketa egotekotan, probaren guztizko emaitzaren arabera. Deialdi bat baino gehiago eginez gero, geroagokoan hautatuak izan direnak, zerrendan zeudenen atzean txertatuko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hurrengo oposizio edo zerrendak berregin arte. Berariazko zerrendan sartzeko proba egitea eskatzen den zerrendetan, espezialitate horretan aurretik proba gabe osatu ziren zerrendak balio gabetuko ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Urtean bi aldiz behintzat irekiko dira zerrendak, eta ikasturtean zehar espezialitate guztiak irekitzea bermatuko da. Deialdia argitaratu ondoren, izena emateko 20 egun naturaleko epea egonen da. Behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren, 10 lan eguneko epea egongo da erreklamatzeko. Honen ondoren behin betiko zerrendak argitaratuko dira.
4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (NEZ) bidez hautatutako izangaiak	Zerrendetan izangairik ez dagoenean, Departamentuak eskakizunak betetzen dituzten lan-eskatzaileak gehituko ditu.	Zerrendetan izangairik ez duenean, Departamentuak eskakizunak betetzen dituzten lan-eskatzaileak gehituko ditu.	NEZek zerrenda berriak osatu arte (gehienez 3 urte).	
5. Kontratazio deialdi bereziak	<p>Beharragatik eta zerrendetan inor ez dutenean kontratu bereziak eginen dira bete behar den lanpostuari hobekien egokitzen zaion pertsonari eskainiz, aurretik honako prozedura jarraiki, beti ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko zuzendaritzaren txostena lanpostua lehen bait lehen betetzearen garrantzia eta beharra azalduz. Departamentuko atalaren txostena zerrenden agortzea azalduz eta justifikatuz. Dagokion atalaren idatzizko baimena, kontratazio bereziari bide emanen diona. 			

PLE egonkortzeko oposizio-lehiaketatik eratorriak diren aldi baterako kontratazio-zerrendak

Atzerriko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetarako, egonkortzeko PLE oposizio-lehiaketatik eratorritako zerrendek lehentasuna izango dute indarrean dauden zerrenda arrunten gainetik. Honela ordenatuko dira:

- | | | |
|---|--|--|
| <p>1. Atzerriko hizkuntza (PLE) irakasteko programako lan eskaintza publikoan lanposturik gabeko gaindituak (lehentasuneko zerrenda).</p> <p>2. Atzerriko hizkuntza (PLE) irakasteko programako lan eskaintza publikoko izangaiak (zerrenda orokorra).</p> <p>3. Espezialitate bera (borondatezkoa).</p> <p>3.1. Gaztelania, C1 eskakizunarekin.</p> <p>3.2. Euskara, C1 eskakizunarekin.</p> <p>3.3. Gaztelania, B2 eskakizunarekin.</p> <p>3.4. Euskara, B2 eskakizunarekin.</p> | <p>4. Haur eta Lehen Hezkuntzako Atzerriko hizkuntza espezialitatea gaztelaniaz (borondatezkoa).</p> <p>4.1. C1 duten gaztelaniako izangaiak.</p> <p>4.2. C1 duten euskarako izangaiak.</p> <p>4.3. B2 duten gaztelaniako izangaiak.</p> <p>4.4. B2 duten euskarako izangaiak.</p> <p>5. Haur eta Lehen Hezkuntzako Atzerriko Hizkuntzako espezialitatea euskaraz (borondatezkoa).</p> <p>5.1. C1 hizkuntza-eskakizuna duten izangaiak.</p> <p>5.2. B2 hizkuntza-eskakizuna duten izangaiak.</p> | <p>Beste hizkuntza bateko zerrenda arrunteko langileak ez daude behartuta LETean derrigorrez parte hartzera eta kontratazioa berriak zerrenda orokor arruntean sartuko dira.</p> <p>Zerrendak amaitu ondoren edo zerrendarik ez balego, PLE plazak eskainiko zaizkie, nahitaez, hizkuntza bereko espezialitate asimilatuei dagozkien zerrendetan agertzen diren izangaiei, dagokion atzerriko hizkuntzaren profila egiaztatuta izanda (IP, FP edo ALEP).</p> |
|---|--|--|



Nafarroa: Joakin Beuntza, 4-6 behea • 31014 Iruñea

☎ 948 21 23 55 ☎ 948 22 97 90 ✉ nafarroa@steilas.eus

www.steilas.eus

